DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

HEZKUNTZA

- Unibertsitateaz kanpoko euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia (EIMA)..... 3
- IRALE programan irakasle liberatuak dituzten itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntza-deialdia 5
- NOLEGA deialdi bateratua 2025-2026 7
- Itunpeko ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko proiektuetarako deialdia (ULIBARRI) 9
- Eskola-garraioko banakako dirulaguntzak 11
- ELEANIZTASUNERANTZ: itunpeko ikastetxeetako hizkuntza proiektuak 12
- Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diruz lagundutako plazetarako deialdia, derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat. 14
- Batxilergoko sari berezien deialdia 16
- Zero eta hiru urte bitarteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzak 18
- Titulartasun pribatuko haur hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako 2025-2026 ikasturterako laguntzak 19
- Udal musika-ikastegientzako diru-laguntzen deialdia 20
- % 25etik gorako udal-finantzaketa duten eta ez duten musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzak 22
- Ikasle etorri berrien hizkuntza indartzeko dirulaguntzak 25
- Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak 26
- Dirulaguntza deialdia lanbide heziketako euskal kontseiluan ordezkaritza duten konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten 28
- Itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntza 29
- Irakasleak prestatzeko jarduerak IKPP 31
- Erasmus + 2025 33
- Atzerriko hizkuntza indartzeko programa 35
- Berrikuntza eta ekintzailetza proiektuak egiteko dirulaguntza 37
- Jarduketa-ildoak 2025-2026 39

- Kultura ekintzailea 41
- Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza 43

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Unibertsitateaz kanpoko euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia (EIMA)

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko urriaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena unibertsitateaz kanpoko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko (EIMA deialdia).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko urriaren 7koa, Hezkuntzako sailburuarena, deialdia egiten duena unibertsitateaz kanpoko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko (EIMA deialdia). AGINDUA, Hezkuntza sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizioari zuzenduriko dirulaguntzak esleitzen dituena (EIMA 1 modalitatea). AGINDUA, Hezkuntza sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntzak erabakitzen dituena (EIMA DIGITALA modalitatea). AGINDUA, Hezkuntza sailburuarena, unibertsitateaz kanpoko irakasmailetako euskarazko ikasmaterial inprimatuak sortzeko laguntzak esleitzen dituena (EIMA 4 modalitatea).

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitateaz kanpoko mailetarako euskarazko material didaktiko inprimatu eta digitalen ekoizpena, argitalpena eta banaketa bermatzea, ikasleei zein irakasleei.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

	EIMA 1	EIMA DIGITALA	EIMA 4	Guztira
Aurkeztutako eskabideak	91	41	15	147
Diruz lagundutako ikasmaterialak	89	22	11	122
Dirulaguntza jaso duten argitaletxe/produkzio-etxe/lantalde/norbanakoak	9	20	6	34
Aurrekontua	500.000	400.00	85.000	985.000
Esleitutako kopurua	500.000	400.00	85.000	985.000

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreik.	Emaitza
Dealdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua (EIMA 1)	125	89
Dealdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua (EIMA DIGITALA)	20	22
Dealdiaren bidez diruz lagundu nahi den ikasmaterial kopurua (EIMA 4)	14	11

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

IRALE programan irakasle liberatuak dituzten itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntza-deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2025ean Irale programan irakasle liberatuak dituzten itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntza-deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko uztailaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baita 2025ean Irale programan irakasle liberatuak dituzten itunpeko ikastetxeentzako dirulaguntza-deialdia.

1. TXANDA:
   EBAZPENA, sailburuordearena, ikasturteko IRALE Hezkuntza 2025-2026 programaren lehenengo txandan (iraila-abendua) irakastordu barneko euskara ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik itunpeko ikastetxeentzako diru-laguntzak erabakitzen dituena.
2. TXANDA:
   EBAZPENA, sailburuordearena, ikasturteko IRALE Hezkuntza 2024-2025 programaren bigarren txandan (urtarrila-ekaina) irakastordu barneko euskara ikastaroak egiteko onartuak izan ziren irakasleen ordezkotzagatik itunpeko ikastetxeentzako diru-laguntzak erabakitzen dituena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2025. urtean IRALE programan irakastordu barneko ikastaroren batean ikasketari gisa aritu diren irakaslerik duten ikastetxe pribatu edo gizarte-ekimenezkoei diruz laguntzea da deialdi honen xedea, aipatu irakasleen ordezkatzeek sortutako gastuei aurre egiten laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Ikastetxe pribatuetako irakasleentzako postu kopurua (lehendabiziko txandan):
- Oinarrizko ikastaroak (U), urtebetekoak: 16
- Goi-mailako ikastaroak (R), hiruhilabetekoak: 21

Ikastetxe pribatuetako irakasleentzako postu kopurua (bigarren txandan):
- Oinarrizko ikastaroak (U), urtebetekoak: 12
- Goi-mailako ikastaroak (R), hiruhilabetekoak: 37

Aurrekontuaren gauzatzea:
- Aurrekontua: 1.433.000,00 €
- Aurrekontuaren gauzatzea: 1.433.000,00 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako liberazio kopurua	32	28
Diruz lagundutako ikastetxe kopurua	51	58

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

NOLEGA deialdi bateratua 2025-2026

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-eremua euskalduntzeko Nolega dirulaguntzen deialdia egiten duena 2025-2026 ikasturterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko irailaren 23koa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-eremua euskalduntzeko Nolega dirulaguntzen deialdia egiten duena 2025-2026 ikasturterako.
EBAZPENA, Euskararen eta Hizkuntzen Ikaskuntzarako Institutuaren zuzendatiarena, zeinaren bidez ebazten baitira itunpeko ikastetxe pribatuetako eskola giroa euskalduntzeko 2025-2026 ikasturterako dirulaguntzak.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Honako deialdi hau itunpeko ikastetxe pribatuei zuzenduta dago, 2025-2026 ikasturtean eskola giroa euskalduntzeko xedez egin ditzaten ekintzak diruz laguntzeko. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei zuzenduta dago, hain zuzen; baita, horiez gain, maila horietan aritu ez arren, Ulibarri programan dauden itunpeko ikastetxeei.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Diruz lagundutako ikastetxeak: 199
Aurrekontua: 190.000,00 €
Aurrekontuaren gauzatzea: 190.000,00 €
Gehienbat ikasleei zuzendutako ekintzak dira diruz laguntzen direnak, baina baita irakasle, zaintzaile eta gurasoei. Diruz laguntzen diren jarduerak eraginkortzat hartu daitezke, diru kopurua txikia izanik ere, ikastetxeek egiten jarraitzen dutelako, eta, halaber, diru kopurua igotzeko eskaera egiten dutelako beti.
Oinarriek honako hau jasotzen dute emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruz:

6.- oinarria. Onuradunen betebeharrak

3. 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bat egina onartzen duenari jarraikiz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspen	Emaitza
Ikastetxe kopurua:		
Euskal kultura eta bere transmisioa	172	188
Euskararen erabilera edo atxikimendua sustatzeko ekintzak	162	182
Eskola-trukea - IKABIL	14	14

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itunpeko ikastetxeetako hizkuntza normalizazioko proiektuetarako deialdia (ULIBARRI)

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntza-deialdia egiten duena, 2025-2026 ikasturtean Ulibarri Programan jarraitzeko nahiz bertara biltzeko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko uztailaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntza-deialdia egiten duena, 2025-2026 ikasturtean Ulibarri Programan jarraitzeko nahiz bertara biltzeko.

EBAZPENA, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, zeinaren bitartez jakinarazten baita 2025-2026 ikasturtean Ulibarri Programan sartuko diren itunpeko ikastetxe pribatuak, jarraituko dutenak, dagokien ordu-esleipena eta esleitzen zaien dirulaguntza.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako Hizkuntza Normalizazioko Proiektuen garapenean partaide diren itunpeko ikastetxeak eta herri ikastetxeak biltzen ditu Ulibarri programak. Ikastetxe hauetan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea dira helbururik nagusienak.

Ulibarri programak eta bertan arituko diren itunpeko ikastetxeek izango dituzten diru baliabideak finkatzen ditu agindu honek, baita programan sarbidea eskatu nahi duten ikastetxeentzako prozedura eta baloratzeko irizpideak ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025ean ezarpen hauek egin ziren:

Dirulaguntza kopuru osoa: 1.225.000,00 €

- 245.000 eurokoa 2025-26 ikasturteko hasierako ordainketa egiteko. (2025ean)
- Deialdia gauzatzeko, 980.000 euroko aurrekontua 2025-26 ikasturteko bigarren ordainketa egiteko. (2026an)

Behin esleipenak egin eta gero, ikastetxe bakoitzari dagokiona bi zatitan ordaintzen zaie: ikasturte hasieran, ebazpena atera eta gero, laguntzaren %20, eta ikasturtearen bukaeran, ikasturteko ekimenen urteko memoria eman eta gero, gainerako %80. (Deialdiak berak dio horrela egin behar dela).

Beraz, 2025ean ordaindu da 2024-2025 ikasturteko 980.000,00 € eta 2025-2026ko 245.000,00 €

Hizkuntza Normalizazioko ULIBARRI proiektuan 181 itunpeko ikastetxek parte hartu dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Itunpeko ikastetxeak	178	181

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Eskola-garraioko banakako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko azaroaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2025-2026 ikasturterako eskola-garraiorako banakako esleipenak emateko prozedurarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko azaroaren 18koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2025-2026 ikasturterako eskola-garraiorako banakako esleipenak emateko prozedurarako deialdia egiten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Eskola-garraiorako eskubidea duten eta Sailak antolatutako eskola-garraioaren zerbitzura egokitzen ez diren eskola-garraioko ikasleen eskola-garraioa finantzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025/26ko deialdia ebatzi bitartean, 2024/2025 ikasturteko datuak honakoak dira:

L.H.	PUBLIKOA		PRIBATUA		DIRULAGUNTZAK GUZTIRA.	TOTAL IMPORTE
	EMAK.	GIZON.	EMAK.	GIZON.		
Araba/Álava	398	485	74	83	1.040	1.580.302,07 €
Bizkaia	303	442	156	321	1.222	3.790.387,19 €
Gipuzkoa	345	472	113	280	1.210	2.098.914,16 €
					3.472	7.469.603,42 €

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikasle onuradunak (2024/2025 ikasurtea)	4.000	3472

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

ELEANIZTASUNERANTZ: itunpeko ikastetxeetako hizkuntza proiektuak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntza-deialdia egiten zaie unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko berrikuntza proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruan, 2024-2025eko ikasturtean

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko ekainaren 4koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntza-deialdia egiten zaie unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei, ikastetxeko berrikuntza proiektuekin lotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten ikastetxeko hizkuntza-proiektuaren barruan, 2024-2025eko ikasturtean.

EBAZPENA, Hezkuntza Politiketako Sailburuordearena, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako itunpeko ikastetxe pribatuen federazio eta elkarteei zuzendutako dirulaguntzen deialdia ebazten duena, 2024-2025 ikasturtean Ikastetxeko Hizkuntza-Proiektuaren barruko berrikuntza-proiektueilotutako prestakuntza-jarduerak egin ditzaten.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ikastetxeko hizkuntza-proiektua garatzera bideratutako hezkuntzako prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak finantzatzea. Proiektu horietan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako irakasleek parte hartzen dute – heziketa-zikloak alde batera utzita –, eta itunpeko sareko ikastetxeetan eta Hezkuntza Sailaren mendekoak ez diren ikastetxe publikoetan garatzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

2024-2025 ikasturteko deialdiari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 1.332.000 eurokoa da guztira (444.000 euro 2024rako eta 888.000 euro 2025erako).

Justifikazioak aztertu ondoren, zenbatekoa honela banatu da:

Elkartea/Federazioa	**2024**	**2025**	**Guztira**
Euskal Herriko Ikastolak	85.024,63 €	80.895,34 €	165.919,97 €
Kristau Eskola	68.305,00 €	100.119,34 €	168.424,34 €
Eusko Ikastola Batza	117.438,63 €	202.089,49 €	319.528,12 €
Elizbarrutiko ikastetxeak	44.359,96 €	42.441,18 €	86.801,14 €
AICE/IZEA	15.550,00 €	17.800,50 €	33.350,50 €
Ikasgiltza	68.915,29 €	83.310,88 €	152.226,17 €
Guztira	**399.593,51 €**	**526.656,73 €**	**926.250,23 €**

Generoaren arloan, proiektuek indarrean dagoen araudia betetzea lortu nahi da, pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredu bat sustatzeko, genero-estereotipoak eta -rolak alde batera utzita, hezkidetzako proiektuak abian jartzea sustatuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Proiektu eleaniztunak itunpeko ikastetxeetan, A modalitatea	130	127
Proiektu eleaniztunak itunpeko ikastetxeetan, B modalitatea		42

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diruz lagundutako plazetarako deialdia, derrigorrezko bigarren hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat.

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diruz lagundutako plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko urriaren 15ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diruz lagundutako plazetarako deialdia egiten duena, Euskal Autonomia Erkidegoaren funts publikoen bitartez finantzatzen diren ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetan matrikulatutako ikasleentzat.
Atzerriko hizkuntza-ikastaroak. 2025eko uda. DBH eta Batxilergoa. Deialdiaren behin betiko ebazpena. Behin betiko ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Guztira 532 plaza deitu ziren 2025eko udan Alemanian, Frantzian, Erresuma Batuan eta Irlandan egonaldiak eta ikastaroak egiteko. Plaza horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleei zuzenduta daude, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko funts publikoekin finantzatutako ikastetxeetan matrikulatuta badaude.
Deialdi honetan, Erresuma Batuko destinoari dagozkion 4 plaza gehiago gehitu ziren, 2024-2025eko deialdian DBHko 2. mailako ikasleentzat Matematika Olinpiadan lehenengo lau postuetan zeuden pertsonentzat. Ondorioz, 536 plaza daude guztira.
Egonaldiek bi asteko iraupena dute eta, batez ere, Hezkuntza Sailak finantzatzen ditu. Hala ere, familiek beren gain hartu behar dute kostuaren zati bat: 140 euro 1. tarteko ikasleen kasuan, eta 560 euro aurreko ikasturteko "Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko bekak eta ikasketa-laguntzak" deialdian beka lortu duten ikasleentzat.
Plaza bakoitzak honako kontzeptu hauek barne hartzen ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuetatik helmugarainoko joan-etorriko bidaia, bidaia-asegurua, matrikula eta hizkuntza-ikastaroko eskola-materiala, ostatua, mantenua eta ikastaroa emango den zentrorainoko hiri-garraioa.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere).

Esleitutako 532 plazak honela banatu ziren, lurralde historikoaren eta egonlekuaren arabera:

	Araba		**Gipuzkoa**		**Bizkaia**	
	Ikasle kop.	Zenbatek. guztira	Ikasle kop.	Zenbat. guztira	Ikasle kop.	Zenbat. guztira
Ingelesa Irlandan	22	37.258 €	74	126.086 €	102	171.978 €
Ingelesa Erresuma Batuan	32	54.880 €	105	181.440 €	127	216.020 €
Frantsesa Frantzian	5	7.940 €	15	20.460 €	30	42.600 €
Alemaniera Alemanian	4	6.312 €	2	3.156 €	14	22.092 €
Guztira	**63**	**106.390 €**	**196**	**331.142 €**	**273**	**452.690 €**

Gastua guztira	**890.222 €**	Gastua guztira (olinpiada matematikoarekin)	**898.062 €**
Ikasleak guztira	**532**	Ikasleak guztira (olinpiada matematikoarekin)	**536**

Genero-ikuspegiari dagokionez, ez du eraginik beka honetan. Beka emateko irizpidea ikasleen nota akademikoaren araberakoa da. Berdinketa gertatuz gero, berdinketak hausteko irizpidea familien errenta da, 1. tarteko ikasleen kasuan, eta 2. tarteko ikasleen kasuan, zozketa egiten da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikasle bekadunak	536	536

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Batxilergoko sari berezien deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Hezkuntza sailburuarena, Batxilergoko Sari Bereziak arautu eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 30ekoa, Hezkuntza sailburuarena, Batxilergoko Sari Bereziak arautu eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituena.
AGINDUA, 2025eko apirilaren 8koa, Hezkuntza sailburuarena, 2024-2025 ikasturteko Batxilergoko Sari Berezietarako deialdia egiten duena.
EBAZPENA, 2025eko uztailaren 2koa, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, 2024-2025 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu dituzten ikasleei zuzendutako Batxilergoko Sari Bereziak ematen dituena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Batxilergoan bikaintasuna eta talentua bilatzeko ibilbide akademiko bikaina egin duten ikasleen ahalegina eta dedikazioa aitortzea eta sustatzea, gizakiaren esparru guztietan.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiari esleitutako aurrekontu-zuzkidura 19.760 €-koa da, urtean 1.235 euro gordineko 16 sariri dagokiena.
Deialdia «Hezkuntza-sustapena» 4231 programaren barruan sartzen da. Programa horren helburua da ibilbide akademiko bikainarekin Batxilergoa egin duten ikasleen ahalegina eta dedikazioa aitortzea eta sustatzea, bikaintasuna bilatzea eta talentua identifikatzea garapen pertsonalaren eremu guztietan.
Ezarritako adierazlea da Batxilergoko Sari Berezi bat ematea urteko deialdiari dagokion ikasturte bakoitzeko Batxilergoko bigarren mailan matrikulatutako mila ikasleko edo bostehun ikasletik gorako frakzio bakoitzeko. Ikasturte bakoitzeko 15.600 ikasleko aurreikuspenarekin, 16 sari eman behar ziren. 2024-2025 ikasturtean, 15.716 ikasle matrikulatu ziren, eta, beraz, 16 sariren deialdiari eutsi zitzaion.
Deialdi honen jarraipena indartuko duten adierazle berrien bilaketan, parte-hartzearen datuak hartu behar dira kontuan. 2024-2025 ikasturtean, Batxilergoko bigarren mailan matrikulatutako 15.716 ikasletatik 655ek eman zuten izena Batxilergoko Sari Berezien deialdian (Batxilergoko bigarren mailan matrikulatutako ikasle guztien % 4,17k), eta horietatik 465 bertaratu ziren probara.

Kontuan hartuta 8,75etik gorako batez besteko nota duten ikasleek bakarrik eman dezaketela izena proba horietan, eta proba horiek Batxilergoko bigarren mailako azken azterketak eta Unibertsitatera Sartzeko Proba egin ondoren egiten direla (horrek dakarren esfortzu-, akidura- eta estres-mailarekin), partaidetza-datu horiek esanguratsuak dira, eta etengabe errepikatzen dira urtez urte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Batxilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleak	15.600	15.716
Eman beharreko sarien kopurua	16	16
Proban izena eman zuten ikasleak	691	655
Proba egin zuten ikasleak	529	465

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Zero eta hiru urte bitarteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025 urriaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, 0-3 urte arteko haur-eskolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2025-2026 ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025 urriaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez, 0-3 urte arteko haur-eskolen toki-korporazio titularrentzako dirulaguntzen deialdia egiten baita 2025-2026 ekitaldirako.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren helburua 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dirulaguntzak ematea da. Ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta sare publikoan hezkuntza-etapa horiekin bat datozen ezagutzak eta konpetentziak eskuratzeko aukera ematea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Haur-eskolak mantentzeko gastuan laguntzea eta familien ekarpenak murriztea izanik helburua.
Diruz lagundu da talde bakoitzaren mantentze-kostuaren % 60a, 0 – 1 eta 1 – 2 urteko adin-tarterako, eta % 100, 2 – 3 urteko adin-tarterako.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Udaletxeen kopurua	10	10
Ikasleen kopurua	867	867

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Titulartasun pribatuko haur hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako 2025-2026 ikasturterako laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025ko urriaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako laguntzen deialdia egiten duena 2025-2026 ikasturterako

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025ko urriaren 21ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolentzako laguntzen deialdia egiten duena 2025-2026 ikasturterako

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Titulartasun pribatua duten 0-3 urte bitarteko haur-eskolak finantzatzea. Itunpeko ikastetxe pribatuetan, kanpoan geratuko da Haur Hezkuntzako lehen zikloko hirugarren kurtsoa (bi urteko gela).
Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak eskolaratzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Titulartasun pribatuko 0-3 urteko haur-hezkuntzako eskolak mantentzeko gastuen laguntzea.
- Familien kuotak murriztea eta homogeneizatzea.
- Familia eta lana uztartzen lagunduko duten zerbitzu zabala eskaintzea.
- Dagoen eskaintza finkatzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikastetxeen kopurua	193	193
Ikasleen kopurua	4.929	4.929

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Udal musika-ikastegientzako diru-laguntzen deialdia

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita udal-titulartasuneko musika-ikastegiak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita udal-titulartasuneko musika-ikastegiak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

Emate-ebazpena: EHAAen ez da oraindik argitaratu.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren helburua musika-irakaskuntzako udal-zentroen 2024-2025 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzea da:

- Irailaren 20ko 250/2005 Dekretuak eta abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak araututako irakaskuntzak ematen dituzten udal-titulartasuneko kontserbatorioak.
- Maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak araututako udal musika eskolak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 45 udalek, musika-eskolen edo kontserbatorio profesionalen titularrek, parte hartu dute zentro horiek finantzatzen laguntzeko deialdian.

45 udalak onartuak izan dira (egia esan, 49 musika-zentroren titularrak dira, 4 udalek musika-eskola baten eta kontserbatorio baten titularrak direlako). Zentro horietan 22.079 ikasle matrikulatuta egon dira, prozesua ebazten laguntzen duen aplikazio informatikoak emandako datuen arabera: 21.544 ikasle arautu gabeko irakaskuntzan eta 535 ikasle irakaskuntza arautuan. Ikasle kopurua 433 pertsonatan igo da aurreko deialdiarekin alderatuta (23-24 ikasturtea).

Irakasle kopuruari dagokionez, 997 irakasle izan dira. Kontuan izan behar da ikastetxe horietan, irakaskuntza espezializatu horien ezaugarriak direla eta, oso ohikoa dela irakasleak orduka kontratatzea, batez ere ikastetxe txikienetan. Beraz, datu horrek ez du esan nahi irakasle guztiek dedikazio osoa dutenik. Irakasle ez diren langileei dagokienez, 221 pertsona.

Dirulaguntzaren banakako zenbatekoa musika-zentro horiek eskaini beharreko hezkuntza-zerbitzuen estandarrari buruzko modulu ekonomikoekin kalkulatu da. Gainera, emandako laguntzaren zenbatekoak

ezin du, inola ere, justifikatutako gastuaren herena gainditu, eta, beraz, udal batzuen laguntza murriztu da muga horren ondorioz.

Udal-titulartasuneko musika-zentroek 53.648.447,07 euroko aurrekontua aurkeztu dute guztira, eta jasotako dirulaguntzen guztizkoa, aurreko paragrafoan aipatutako dirulaguntzak kalkulatzeko irizpideak aplikatu ondoren, 13.800.000,00 eurokoa izan da (Ebazpena ez dago oraindik argitaratuta EHAAen). Oro har, finantziazio-maila % 28,94koa da.

Hala ere, aurrekontua ez da nahikoa izan dirulaguntzen guztizko zenbatekoari aurre egiteko; beraz, hainbanaketa bat aplikatu zaie dirulaguntza guztiei, eta, horren ondorioz, hasiera batean egokitu zitzaien laguntzaren % 98,35 eman zaie. Horregatik, udal bakar bat ere ez da % 33ra iristen. Hala ere, horietako 26 hainbanaketatik ateratzen den maximora iristen dira (% 32,78), eta beste 2 gehiago % 30etik pasatzen dira.

Begi-bistakoa da musika-eskolek euskal udalerrietako bizitza kultural eta artistikoari egiten dioten ekarpena (are esanguratsuagoa udalerri txikienetan), ez bakarrik musika-prestakuntza eta praktikarako sarbidea errazten dielako pertsona askori (adina, jatorria edo prestakuntza-maila baldintzatu gabe), baizik eta, nolabait, herritar guztiak inplikatzen dituelako –nahiz eta eskolaren erabiltzaile zuzena ez izan–, herritarrek jasotako prestakuntzaren etekinean parte hartzen dutelako, eta hori nabarmen agertzen da herri eta hiri bakoitzeko kultura-jardueran. Egia esan, eskola horien jardueraren proiekzio soziala oso nabaria da; izan ere, sarritan, parte aktiboa izaten dira komunitateko herri askoren jai herrikoietan eta kultur programetan.

Kontuan izan behar da musika-irakaskuntzako zentro horiek (beren baliokide pribatuekin batera) 34.000 ikasle baino gehiago dituztela, hau da, Eusko Jaurlaritzaren mendeko hiru kontserbatorioetako ikasleek baino kopuru askoz handiagoa (1.300 ikasle inguru). Datu hauek ikusita, eragin soziala ezin da zalantzan jarri.

Bestalde, programa honek ez du genero-ikuspegiarekin edo natura-ondarearen kontserbazioaren defentsan jarduten duen aldagai espezifikorik, onuradunek 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginari dagokionez bete behar dituzten baldintzez haratago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Udal-titulartasuneko musika-zentroen batez besteko finantzaketa	33%	28,94%
Zentro kopurua	49	49
997	1000	1.025
Ez Irakasleak	200	221
Ikasle ofizialak	21.500	22.079

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

% 25etik gorako udal-finantzaketa duten eta ez duten musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Musika Ikastegi Pribatuak eta Musikako Zentro Baimendu Profesionalak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Musika Ikastegi Pribatuak eta Musikako Zentro Baimendu Profesionalak finantzatzeko dirulaguntzak emateko.

Emate-ebazpena: EHAAen ez da oraindik argitaratu.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuak araututako titulartasun pribatuko musika-eskoletarako eta abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuak araututako irakaskuntzak ematen dituzten zentro baimenduetarako dirulaguntzen deialdia egitea, 2024-2025 ikasturteko kostuak finantzatzen laguntzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Guztira 46 eskabide aurkeztu dira, iaz baino bat gehiago. Egia esan, 2023ko edizioan parte hartu duten ikastetxeen kopurua berreskuratu da. Hau da, ez da ikastetxe berririk ireki, baizik eta zentroetako batek ez zuen parte hartu 2024ko edizioan. Kasualitatez, ikastetxe hori baztertu egin da zerga-betebeharrak egunean zituela egiaztatu ez zuelako eta deialdian ezarritako nahitaezko dokumentazioa aurkeztu ez zuelako.

Aurreko guztiagatik, guztira 45 parte-hartzaile izan dira onartuak musika-irakaskuntzako ikastetxe pribatuetarako deialdian, eta bi dirulaguntza lerro izan ditu:

a) % 25eko edo hortik gorako udal-finantzaketa duten zentroetarako dirulaguntza-lerroa: 26 musika-zentro pribatuetako titularrek parte hartu dute.
b) Udal-finantziaziorik gabeko zentroetarako dirulaguntza-lerroa: 19 musika-zentro pribatuetako titularrek parte hartu dute.

45 eskatzaileak (egia esan, 49 zentroren titularrak dira; izan ere, horietako 4k bi ikastetxeren titularrak dira, musika-eskola batena eta musika-zentro profesional baimendu batena). 2.808.810,00 euroko

laguntza jaso dute guztira, eta, guztira 13.071.906,60 euroko gastuak justifikatu dituzte; hau da, finantzaketa-maila orokorra %21,49koa izan da. Egia esan, udal-finantzaketarik gabeko zentroei zuzendutako dirulaguntza-lerroak zuzkidura eskasa du, eta datu orokorra baldintzatzen du (izan ere, udal-finantziazioa duten zentroetarako dirulaguntzen lineako finantziazio-maila % 25etik gorakoa da).

12.615 ikasle matrikulatu dituzte guztira, prozesua ebazten laguntzen duen aplikazio informatikoak ematen dituen datuen arabera: 12.337, arautu gabeko irakaskuntzan, eta 278, irakaskuntza arautuan.

Irakasle kopuruari dagokionez, 576 irakasle izan dira. Kontuan izan behar da ikastetxe horietan, irakaskuntza espezializatu horien ezaugarriak direla eta, oso ohikoa dela irakasleak orduka kontratatzea, batez ere ikastetxe txikienetan. Beraz, datu horrek ez du esan nahi irakasle guztiek dedikazio osoa dutenik. Hori izan daiteke Plan Estrategikoan jasotako aurreikuspenarekiko desbideratzearen azalpena.

Irakasle ez diren langileei dagokienez, 101 izan dira, hau da, aurreikusitakoa.

Finantzaketa-irizpideak iazkoen berberak izan dira, eta, ondorioz, laguntzen egonkortasuna lortu da.

Udal-finantziazioa duten zentroen artean 7.904,47 ordu finantzatu dira, eta udal-finantzaketarik gabeko zentroen artean 2.407,97 ordu.

Udal-finantziazioa % 25ekoa edo handiagoa duten ikastetxeek 9.497.387,09 euroko aurrekontua aurkeztu zuten guztira. Guztira 2.423.810 €-ko laguntzak eman ziren (Ebazpena ez dago oraindik argitaratuta EHAAen).

Batez besteko finantzaketa % 26,68koa izan zen, iaz baino puntu bat gutxiago; finantzaketa-maila aurrekontuaren % 33ra hurbiltzen ari da: 4 ikastetxe iritsi dira atal horretara eta beste 5 gehiago dezente hurbildu dira (% 30 gainditu dute edo % 30 inguru daude).

% 25eko edo hortik gorako udal-finantzaketarik gabeko zentroek 3.574,518,93 euroko aurrekontua aurkeztu zuten guztira. Guztira 385.000 €-ko laguntzak eman ziren (Ebazpena ez dago oraindik argitaratuta EHAAen).

Batez besteko finantzaketa % 10,41 izan zen, iazkoa baino pixka bat handiagoa, eta laguntza ez da inola ere zentroaren aurrekontuaren % 33ra iritsi.

Begi-bistakoa da musika-eskolek euskal udalerrietako bizitza kultural eta artistikoari egiten dioten ekarpena (are esanguratsuagoa udalerri txikienetan), ez bakarrik musika-prestakuntza eta praktikarako sarbidea errazten dielako pertsona askori (adina, jatorria edo prestakuntza-maila baldintzatu gabe), baizik eta, nolabait, herritar guztiak inplikatzen dituelako –nahiz eta eskolaren erabiltzaile zuzena ez izan–, herritarrek jasotako prestakuntzaren etekinean parte hartzen dutelako, eta hori nabarmen agertzen da herri eta hiri bakoitzeko kultura-jardueran. Egia esan, eskola horien jardueraren proiekzio soziala oso nabaria da; izan ere, sarritan, parte aktiboa izaten dira komunitateko herri askoren jai herrikoietan eta kultur programetan.

Kontuan izan behar da musika-irakaskuntzako zentro horiek (beren baliokide pribatuekin batera) 34.000 ikasle baino gehiago dituztela, hau da, Eusko Jaurlaritzaren mendeko hiru kontserbatorioetako ikasleek baino kopuru askoz handiagoa (1.300 ikasle inguru). Datu hauek ikusita, eragin soziala ezin da zalantzan jarri.

Bestalde, programa honek ez du genero-ikuspegiarekin edo natura-ondarearen kontserbazioaren defentsan jarduten duen aldagai espezifikorik, onuradunek 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginari dagokionez bete behar dituzten baldintzez haratago.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Zentro pribatuen batezbesteko finantziazioa (udal-finantzaketa duten eta ez duten)	21%	21,49%
Zentro kopurua	48	49
Irakasleak	620	576
Ez Irakasleak	100	101
Ikasle ofizialak	12.000	12.615

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Ikasle etorri berrien hizkuntza indartzeko dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, ikasle etorri berrien hizkuntza indartzeko dirulaguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko irailaren 10ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez dirulaguntzetarako deia egiten baita ikasle etorri berrien hizkuntza indartzeko programak garatzeko.
Behin betiko EBAZPENA Aniztasunerako eta Inklusiorako zuzendariarena. Honen bidez, ikasle hasi berrien hizkuntza sendotzeko programen 2024-2025 ikasturteko deialdia ebazten da.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak ez jakitearekin lotutako komunikazio-zailtasun handiak dituzten eta 2024-2025 ikasturtean hizkuntza indartzeko plan bat behar duten ikasle sartu berriei hizkuntza indartzeko programak egiteko oinarriak ezartzea eta dirulaguntzen deialdia egiten.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdirako aurreikusita zeuden 2.700.000 euro gauzatu dira, eta ondorengo helburuak lortu dira:

- Ikasle sartu berriak integratzea, 2 hizkuntza ofizialak hobeto ezagututa.
- Ikastetxe berrian harremanak izateko trebetasunak garatzea.
- Hizkuntza hobeto kontrolatzearen ondoriozko emaitza akademikoak hobetzea.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikastetxe kopurua	151	158
Ikasle kopurua	3.154	3.198

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-beka eta laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2024-2025 ikasturterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko uztailaren 16koa, Hezkuntzako sailburuarena, unibertsitatez kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako deialdia egiten duena 2024-2025 ikasturterako. - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus

1. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2024-2025 ikasturterako deialdiari buruzkoa.

2. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2024-2025 ikasturterako deialdiari buruzkoa.

3. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2024-2025 ikasturterako deialdiari buruzkoa.

4. Behin betiko ebazpena, unibertsitateaz kanpoko ikasketak egiteko beka, laguntza eta sorospenetarako 2024-2025 ikasturterako deialdiari buruzkoa.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Berdintasunean oinarritutako hezkuntzara iristeko dauden mugak edo desorekak konpentsatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2024-25 ikasturteko deialdiaren onuradunak: unibertsitatez kanpoko 113.643 ikasle, horietatik 53.685 emakumeak, 59.952 gizonak eta 6 beste batzuk. Deialdiak ez du inolako eraginik generoaren ikuspegitik, laguntzak zenbait baldintza betetzearen arabera ematen dira, hala nola errenta-maila eta maila akademikoa.

Ebazpena:

Banakapena	**2024-25 ikasturtea**
Eskola-materiala	86.050
kuota	314
Jantokia	57.722
Oinarrizko beka	13.782
Zenbateko aldakorra	17.034
Errenta zenbateko finkoa	5.876
Bizileku zenbateko finkoa	28
Bikaintasun akademikoa	3.877
HLBP (Berreziketa)	14.941
Guztira	**199.624**

2025ko ekitaldiko aurrekontua % 98,41a, betearazi da: alde batetik, 2024-25 ikasturteko deialdiko zati bat finantzatzeko eta, bestetik, 2024-25 ikasturteko deialdiko beste zati bat.

2025-26 ikasturteko deialdia bukatu gabe dago: zati bat ebatzi eta finantzatu da 2025ko ekitaldiko aurrekontuaren kontura, eta ebatzi gabe dagoena 2026eko ekitaldiko aurrekontuaren kargura finantzatuko da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikasle onuradunak	113.000	113.643
Laguntza kopurua	190.000	199.624

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Dirulaguntza deialdia lanbide heziketako euskal kontseiluan ordezkaritza duten konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko abenduaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, dirulaguntzen deialdia egitekoa Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten gizarte-eragileek 2025eko ekitaldian konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten beren jarduera-eremuan

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2024ko abenduaren 11koa, Hezkuntzako sailburuarena, dirulaguntzen deialdia egitekoa Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten gizarte-eragileek 2025eko ekitaldian konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten beren jarduera-eremuan

EBAZPENA, 2025eko martxoaren 25ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinen bidez esleitzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2024ko abenduaren 11ko Aginduan deitutako dirulaguntzak, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluan ordezkaritza duten gizarte-eragileek 2025eko ekitaldian konpetentzia profesionalak ebaluatu eta egiaztatzeko prozedurak sustatu eta bultzatzeko jarduerak gara ditzaten beren jarduera-eremuan.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu Estrategikoa: Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko aukera erraztea.

Helburu espezifikoa: Lan-esperientziaren bidez edo prestakuntzako bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura sustatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

468.000 euroko aurrekontu-konpromisotik, 442.765,29 euro esleitu ziren.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Gizarte-eragileek egindako jardueren ondorioz izena emandako pertsonen kopurua, guztira	1000	1040

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Itunpeko ikastetxe pribatuetan ikas-ekinezko erregimenean lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko urriaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2025-2026 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan erregimen intentsiboko lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko urriaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, 2025-2026 ikasturtean lanbide-heziketako heziketa-zikloak eskaintzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan erregimen intentsiboko lanbide-heziketa dualeko programak garatzeko dirulaguntzen deialdia egiten duena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten irakaskuntza-ikastetxe pribatuek Lanbide Heziketako sailburuordе jaunaren ebazpen bidez baimendutako ikas-ekinezko erregimeneko lanbide-heziketa dualeko programak garatzea 2025-2026 ikasturtean, betiere deialdi honetako dirulaguntza-eskaera aurkeztu baino lehen baimendu badira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Agindu honen xede diren jarduerak diruz laguntzeko zenbateko osoa zazpiehun eta berrogeita hamar mila eurokoa izango da. (750.000 euro).

Dirulaguntza emango zaie baldintza hauek betetzen dituzten ikastetxeei: ikas-ekinezko erregimeneko heziketa dual intentsibo programak aurkeztea, horretarako baimena izatea eta laguntza hau eskatzea.

2025-2026 ikasturtean proiektu bakoitzean parte hartzen duen ikasle bakoitzeko emango den dirulaguntza kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: agindu honetako 4.1 artikuluan ezarritako aurrekontu-zuzkidura zati proiektuetan parte hartzen duen pertsona kopurua. Edonola ere, dirulaguntzek ezingo dute inola ere gainditu 941 euroko kopurua ikasle bakoitzeko.

Parte hartu dutenak 1139,8 programa izan dira eta aurrekontu guztia 750.000 euro erabili da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ikastetxe pribatu itunduetan modalitate dualean parte hartzen duten ikasleak, zikloa egin dezaketen ikasle guztiak kontuan hartuta	%50	%45
Dirulaguntzaren estaldura itunpeko ikastetxe pribatuetan(emandako planak/eskatutako planak)	%100	%100

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Irakasleak prestatzeko jarduerak IKPP

2.- Araua

AGINDUA, 2025ko ekainaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, 2025-2026 ikasturtean Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko jarduerak egin ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025ko ekainaren 24koa, Hezkuntzako sailburuarena. Honen bidez, dirulaguntzetarako deialdia egiten zaie Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloak irakasten dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei, 2025-2026 ikasturtean Lanbide Heziketako irakasleak prestatzeko jarduerak egin ditzaten.
Dirulaguntzetarako deialdia 2025-2026 ikasturtean ikastetxe pribatuetako Lanbide Heziketako irakasleentzako prestakuntza ekintzak egin ditzaten
BEHIN BETIKO EBAZPENA, 2025eko irailaren 23koa, Lanbide Heziketako Sailburuordearena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxe pribatu itunpekoek prestakuntza-jarduerak egin ditzaten 2025-2026 ikasturtean diru-laguntzak ematen dizkiena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide Heziketako irakasleen etengabeko prestakuntza planek, prestakuntza-proposamenak aurkezten dituzte, non Lanbide Heziketak funtzionamendu egokia izan dezan beharrezkoak diren irakasleen konpetentziak bermatzen diren, eta, bestetik, nahikoa bide irekitzen ditu prestakuntza errazteko, irakasleek beraiek irakaskuntzan jardunez sentitu eta formulatutako eskabideen arabera.

Helburuak:

- Digitalizazioaren eta jasangarritasunaren alorretan ardaztutako prestakuntza-jarduerek lehentasuna izango dute.
- Espezializazio profesionaleko programak, orientazio profesionala, kolaborazio aktiboko metodologiak aplikatzea, aipatutako prozesuetan teknologia aurreratuak erabiltzea eta edozein espezialitatetako irakaslearen ekintzailetzaren kultura indartzen duten ekintzak, baita sormenezkoak ere. gaitasuna, berrikuntza eta pentsamendu eraikitzailea. Era berean, genero ikuspegia txertatzera zuzendutako jarduerak lehentasunezkoak izango dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025-26 deialdirako aurrekontua ere 240.000 eurokoa izan da, eta guztira 231.182,20 euroko zenbatekoarekin ebatzi zen. 2025-26eko deialdian honako hauek diruz lagundu ziren:

Diruz lagundutako zentroak: 26

Formakuntzak: 96

Parte hartzen duten irakasleak: 1263

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako irakasleen prestakuntza-proiektuak	85	96
Diruz lagundutako ikastetxeak	25	26
Parte hartzaileak	1000	1263
LHko 6. euskal planaren ardatzak betetzen dituzten prestakuntza-ekintzen %	%70	%100

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erasmus + 2025

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, Erasmus+ programaren barruan Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako ka1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko laguntza ekonomikoetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko uztailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, Erasmus+ programaren barruan Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako ka1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko laguntza ekonomikoetarako deialdia egiten duena.

Lanbide Heziketako irakasle eta ikasleentzako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko dirulaguntzetarako deialdia, ERASMUS+ programaren esparruaren barruan (2025-2026).

EBAZPENA, Lanbide Heziketako Sailburuordearena, Honen bidez, diru-laguntzak ematen dira Lanbide Heziketaren eremuan ikaskuntzarako KA1 mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko, ERASMUS+ programaren esparruaren barruan.

4.- Dirulaguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Erasmus+ Programa erkidegoko ekintza-programa bat da, eta Lanbide Heziketan eta Heziketan parte hartzen duten pertsona guztien irakaskuntza- ikaskuntza beharrak asetzea du helburu, baita hezkuntza eta prestakuntza hori ematen edo errazten duten erakundeena ere.

Kontuan izanik erkidegoaren finantzaketa ez dela jarduketaren aurrekontuaren %100era iristen, deialdi honen bidez lortutako diru-laguntzak erkidegoko finantzaketarekin estali gabeko aurrekontuaren ehunekoari aurre egiteko erabiltzen da.

Mugikortasun hauek kofinantzatzen dira:

1. Goi-mailako Lanbide Heziketari dagozkion KA1 proiektuak: ikasle zein irakasleentzako mugikortasuna.
2. Goi-mailarekin bat ez datozen gainontzeko Lanbide Heziketako KA1 proiektuak: irakasleen mugikortasuna soilik.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurreko ikasturteetan bezala, 2025-2026 ikasturtean 500.000 euroko aurrekontu-kreditua dago, eta guztizko zenbatekoarekin ebazten da.

Eskatutako proiektuen kopurua ezagutzen dugu, baina ez egindako mugikortasunena. Azken datu hori ez dakigu ikasturtea amaitu arte eta erakunde eskatzaileek aurkeztutako txostenak aztertu arte. Horrela, 6. puntuan ematen ditugun datuak bat datoz hasieran eskatutako mugikortasunekin.

Dirulaguntzen programak genero-ikuspegian duen eraginari dagokionez, deialdi hau Erasmus+ mugikortasun-proiektuak garatzen dituzten erakundeei zuzenduta dago. Ez dago balorazio-irizpiderik laguntza lortu den ala ez zehazteko. Horretarako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiek jasotzen dute dirulaguntza.

Nolanahi ere, genero-ikuspegitik oreka dago diruz lagundutako mugikortasunak egiten dituztenen artean. 2024-2025 ikasturtean, mugikortasunak egin zituzten 549 ikasleetatik % 43 emakumeak ziren eta % 57 gizonak. Eta mugitu ziren irakasle guztietatik (372), % 53 emakumeak izan ziren, eta gainerakoak (% 47) gizonak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Itunpeko ikastetxeak proiektuak	28	58
Itunpeko ikastetxeak mugikortasuna	600	1.093

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Atzerriko hizkuntza indartzeko programa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko programentzako 2025-2026 ikasturteko dirulaguntzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko uztailaren 28koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen baitira heziketa-zikloak eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko programentzako 2025-2026 ikasturteko dirulaguntzak.

Heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuetan atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak (2025-2026)

EBAZPENA Lanbide Heziketako sailburuordearena, 2025-26 ikasturtean zehar atzerriko hizkuntza indartzeko laguntzak emateko dena, heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuei.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hizkuntzak giltzarri dira ikasleen enplegagarritasuna eta mugigarritasuna hobetzeko, enpresek merkatu globalizatuetan jardutea eskatzen dutenez gero.

Azpimarratu da garrantzizkoa dela hizkuntzak ikastea eta herritar guztien hizkuntza-konpetentziak hobetzen laguntzen duten sistemak indartu beharra, eta, bereziki, prestakuntzan diharduten ikasleen kasuan, betiere helburu hartuta Europar dimentsioa, enplegagarritasuna eta mugigarritasuna indartzea.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen atzerriko hizkuntza gaitasunak hobetzera bideratutako ekimen multzo bat sustatzen da.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025-26 deialdiaren ebazpenaren ondoren, deialdiko aurrekontutik (100.000,00€) 48.881,00 euro gauzatu dira.

Deialdia itxi gabe dago, eta momentuz ditugun datuak ondorengoak dira:

23 talde presentzial, guztira 225 ikaslerekin, eta 18 parte-hartzaile online prestakuntza-modalitatean. Totalean 243 ikasle.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Itunpeko Ikastetxeak	10	11
Ikasle parte hartzaileak	250	243

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Berrikuntza eta ekintzailetza proiektuak egiteko dirulaguntza

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko apirilaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten diena 2025-2026 ikasturtean Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean zehaztutako estrategiari eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko apirilaren 29koa, Hezkuntzako sailburuarena, Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko dirulaguntzetarako deialdia egiten diena 2025-2026 ikasturtean Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean zehaztutako estrategiari eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planari jarraitzen dioten Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeei.
EBAZPENA, 2025eko uztailaren 1ekoa, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2025eko apirilaren 29ko Aginduan araututako diru-laguntzak, 2025-2026 ikasturtean garatu beharreko berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak egiteko - Eusko Jaurlaritza

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren benetako garapena bultzatzeko, Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren aldaketak gidatu behar dituen tresna baita plana, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak itunpeko ikastetxe pribatuei dei egiten die, irakasleen bidez ekintza hauek gauzatu ditzaten: plan horren konpetentziak sendotzeko jarduera eta proiektuetan parte hartzea, ingurune teknologikoki oso aurreratuei erantzuna emateko; Lan bide Heziketak enpresei, bereziki ETEei, laguntza ematea sustatzea, eta enpresei ematen zaien estaldura zabalagoa izan dadin lortzea; Lanbide Heziketatik premia teknologikoen dibertsitateari erantzun sistematiko bat ematea, eta lehentasun teknologikoak eguneratu eta bateratzea Euskadiko berrikuntza-estrategiarekin, tresna sistematikoak ezarriz horretarako.
2025-26 ikasturtean, dirulaguntzen xede izan daitezkeen proiektuek bat etorri beharko dute Lanbide Heziketako 6. Euskal Planean definitutako espezializazio adimenduneko estrategiarekin, bai eta Jaurlaritzaren Ekintzaren Plangintza Estrategikoko ekimenen barruan dauden eta Euskadi Basque Country 2030 Agendarekin lotuta dauden planekin, digitalizazio jasangarrirako eta sistema adimendunetarako plan integralarekin (euskal hezkuntza-sisteman), eta lehiakortasunerako euskal hilabete berdearen eta trebakuntzarako plan integralarekin ere.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025-26 deialdirako aurrekontu-konpromisoa 770.000 eurokoa izan zen, eta 770.000 euroan ebatzi zen.
Hona hemen lortutako emaitzak:
1.adierazlea: Diruz lagundutako proiektuak: 28 (7 proiektu ikastetxe pribatu-itunpekoetan eta 21 proiektu non ikastetxe publiko eta ikastetxe pribatu-itunpeko parte hartzen duten)
2.adierazlea: Proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua: 24

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuak	25	28
Proiektuetan parte hartzen duten ikastetxeen kopurua	20	24

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Jarduketa-ildoak 2025-2026

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egiteko dena, 2025-2026ko ikasturtean Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak gara ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko ekainaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako dirulaguntzen deialdia egiteko dena, 2025-2026ko ikasturtean Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera-ildoak gara ditzaten.

EBAZPENA, 2025eko irailaren 4ka, Lanbide Heziketako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2025eko ekainaren 3ko Aginduaren bidez araututako diru-laguntzak, zeinaren bidez iragartzen baita Lanbide Heziketako heziketa zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxe pribatuentzako diru-laguntzen deialdia, 2025-2026 ikasturtean Lanbide Heziketako 6. Euskal Planaren eta Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Planaren barruan eremu estrategikoetako jarduera ildoak gara ditzaten.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Urtero, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeentzako laguntzen deialdia egiten da, hezkuntza-sistema hobetzeko jarduera osagarriak gauzatzeko, batez ere honako eremu estrategiko hauei lotuta: prestakuntza integratua, berrikuntza aplikatua, ekintzailetza aktiboa eta Lanbide Heziketako ikastetxeen eredu berria.

Deialdiaren helburua itunpeko ikastetxeen parte-hartzea sustatzea da, bertan definitutako jardueretan parte hartzen duten irakasleak finantzatuz, Lanbide Heziketako 6. Euskal Plana hedatzen eta bertan zehaztutako eremu estrategiko bakoitzerako helburuak lortzen lagunduz.

Proiektuen eta jardueren ordenaren arteko desberdintasunak: bi aginduek Lanbide Heziketako sistema konbinatuaren erronkei erantzuten diete.

A.- Jarduketa-ildoen agindua

- Berrikuntza metodologikoko proiektuak (Zerbitzuak, TKgune, Urratsbat) Lanbide Heziketako barne-funtzionamenduan.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzak jarduerak proposatzen ditu, eta Lanbide Heziketako zikloak ematen dituzten itunpeko ikastetxeek horietan parte hartzeko izena ematen dute.

- Garatu beharreko jarduerak zehaztuta daude: metodologiak, enpresentzako zerbitzuak, ekintzailetza, zentroen kudeaketa.

B.- Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuen Agindua

- Ekoizpen-inguruneei lotutako esparru teknologikoko proiektuak.
- Lanbide Heziketako Sailburuordetzak Lanbide Heziketako 6. Euskal Planarekin lerrokatutako proiektu batzuk lehenesten ditu, baina horrek ez du esan nahi ikastetxe bakoitzak Lanbide Heziketako Sailburuordetzak lehenetsitakoekin lotuta egon daitezkeen edo ez dauden proiektuak aurkeztu ezin dituenik, betiere Gobernu Ekintzaren Estrategiarekin bat badatoz.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025-26 deialdirako aurrekontu-konpromisoa 3.199.050 eurokoa izan zen, eta 3.192.300 euroan ebatzi zen.

Hona hemen lortutako emaitzak:

1.adierazlea: Parte hartu duten ikastetxe kopurua: 39

2.adierazlea: Diruz lagundutako ekintza kopurua: 50

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Parte hartu duten ikastetxe kopurua	32	39
Diruz lagundutako ekintza kopurua	42	50

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Kultura ekintzailea

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2025-2026 ikasturteko lanbide-heziketako itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko laguntzak emateko.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025eko irailaren 9koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2025-2026 ikasturteko lanbide-heziketako itunpeko ikastetxe pribatuetako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko laguntzak emateko.

2025-2026ko ikasturtean ekintzailetzaren kultura sustatzeko laguntzak Oinarrizko Lanbide Heziketako, Erdi Mailako eta Goi Mailako Lanbide Heziketako prestakuntza-zikloren bateko 2. mailan dauden ikasleen artean.

Ebazpena, Lanbide Heziketako sailburuordearena, 2025-2026 ikasturtean lanbide-heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko ikastetxe pribatu itunpekoei laguntzak emateko dena.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdi honetan zenbait ekimen bultzatu nahi dira ekintzailetzaren kultura sustatzeko, eta ikasleek enpresa-arloko simulazio-proiektuak egitea da esparru horretako funtsezko jardueretako bat. Ikasketa-tresna horren bitartez, ikasleek zenbait konpetentzia garatzeko aukera dute, eta, modu horretan, profesional onak, enplegagarriak, pertsona aktibo eta ekintzaileak, edo intraekintzaileak izango dira, eta lan-merkatu aldakor eta ezegonkorrari egin ahal izango diote aurre. Era berean, sentsibilizazioa piztu dakieke, autoenplegua ere aukeretako bat izan dadin.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025-26 deialdiak 166.000,00 euroko aurrekontua izan du, eta haren ebazpenak aurrekontu horren %100 hartu du.

30 ikastetxe izan ziren onuradunak, eskatutakoa baino zenbateko txikiagoarekin. Diruz lagundu beharreko proiektuen artean hainbanaketa egin da, kreditu erabilgarria agortu arte.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Itunpeko ikastetxeen kopurua	20	30
2. mailako partehartzaileak	700	2207

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

2.- Araua

AGINDUA, 2025ko ekainaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2025ko deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA, 2025ko ekainaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2025ko deialdia.
https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2025/bozi/web01-tramite/eu/
EBAZPENA, Lanbide Heziketako sailburuordearena, erakundeei bizitza osoan zeharreko ikaskuntzarako jarduerak egiteko diru-laguntzak emateko erabakia hartzen duen

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Agindu hau, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren esparruan, bizitza osoan zeharreko ikaskuntzari buruzko jarduerak egiteko laguntzak arautzen dituen.

Dekretu horrek arautzen dituen laguntzen bidez, hezkuntzaren eta prestakuntzaren eremuan Europako lankidetzarako esparruaren helburu estrategikoak lortzen lagunduko duten jarduerak bultzatu nahi dira («ET 2020»). Halaber, bizialdi osoko ikaskuntzaren kultura gauzatzen, hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen eta ekitatea, gizarte-kohesioa eta herritartasun aktiboa sustatzen lagundu dute ere bai.

Dekretu horren 4. artikuluak finantzatu ahal izango diren hiru jarduera-mota ezartzen ditu:

a.- Prestakuntzako jarduera espezifikoak, aurretiaz identifikatutako eta kuantifikatutako pertsona-multzo baten prestakuntza-arloko beharrizanei erantzuteko diseinatuak eta planifikatuak. Atal horretatik kanpo geratuko dira profesionaltasun-ziurtagiriekin lotutako prestakuntza, enplegurako prestakuntzaren esparruan, eta, ondorioz, Lanbideren deialdien bidez dirulaguntzak lortu ditzaketen jarduerak.

b.- 5. artikuluak ezarritako funtzioak garatzen dituzten ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak. Dekretu honek arautzen dituen laguntzen kontura, zonalde bakoitzerako bitartekotza-zerbitzu bakarra finantzatu ahalko da, udalera zein eskualdera mugatua izan zonaldea.

c.- Gai hauei buruzko esperimentazio-proiektuak: bereziki kualifikazio txikiko pertsonei zuzendutako eduki irekiko ikaskuntza-gaiak lantzea, prestakuntza-ikaskuntzako metodologia berriak, ezagutzaren belaunaldi arteko transferentzia, prestakuntza hurbiltzeko eta ikastea sustatzeko trabak baztertzea edota bizitza osoan egiten den ikaskuntzarekin lotutako beste edozein.

Deialdi honek lehenengo bi jarduera motetarako (a eta b) laguntzen ebazpena jaso du

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Jarduera-mota bakoitzaren zenbateko erabilgarriak hauek izan dira:

a.- Prestakuntza-jarduera espezifikoak: 180.000,00 euro.

b.- Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 750.000,00 euro.

Hala, 2025-2026 deialdirako aurrekontu-konpromisoa 930.000 eurokoa izan zen, eta 930.000 eurokoa ebatzi. zen.

2025. deialdian, 35 erakundek aurkeztutako 22 proiektu lagundu dira diruz:

Prestakuntza-jarduera espezifikoak……15 proiektu

Ikaskuntzako bitartekotza-zerbitzuak……..20 proiektu.

Une honetan ez daukagu 2025eko deialdiaren azken daturik, finantzatutako proiektuak oraindik itxi gabe daudelako. Proiektu horiek egiteko epea 2025eko abuztutik 2026eko uztailera bitartekoa da. Eta erakundeek, ondoren, bi hilabeteko epea dute azken memoriak aurkezteko, hau da, 2026ko irailaren amaiera arte. Ondorioz, 2026ko deialdi honi buruz daukagun informazio bakarra onartutako erakunde eta proiektu kopuruari buruzkoa da (goian emandakoa). Hau da, gaur egun ez dakigu zenbat pertsona artatu diren proiektu bakoitzean.

Hala, 2025eko deialdiari buruzko informazioa ematea erabaki genuen. Azken deialdi horri buruzko informazio osoa dugu, artatutako pertsonen kopuruari buruzkoa. Hona hemen:

Prestakuntza-jarduera espezifikoak ……1.123 pertsona

Ikaskuntzako bitartekotza-zerbitzuak……..7.209 pertsona (4.443 modu presentzialean eta 2.766 modu ez-presentzialean).

Dirulaguntza programak genero-ikuspegian duen eraginari dagokionez, aipatu behar da deialdi hau erakundeei zuzenduta dagoela. Zeharka eta onartutako proiektu bakoitza garatu ondoren bakarrik eragiten die pertsonei.

Nolanahi ere, jakinarazten dugu ebaluazio-irizpideen artean genero-ikuspegia kontuan hartzen duten batzuk daudela, hala nola onartutako proiektuak zuzenean garatzen dituzten profesionalek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako ikastaroak egitea balioesten dutenak, bitartekaritzaren esparruan genero-joerarik gabe duten esperientzia, eta hizkuntza ez-sexistan idatzitako materialak erabiltzea, rolak hausten laguntzen duten irudiekin eta testuarekin.

2024-2025 ikasturtean, prestakuntza-jardueretan parte hartu zuten pertsonen %65 emakumeak izan ziren eta %35 gizonak. Bitartekaritza-zerbitzuetara jo zutenen %50,88 emakumeak izan ziren, eta %49,12 gizonak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Prestakuntza-proiektuen kopurua	12	19
Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuen kopurua	15	19
Bitartekaritza-zerbitzuetan artatutako pertsonen kopurua (2023ko datuak)	6.000	7.209